

## FICHA DEL ITINERARIO

Identificación sobre el mapa	Altitud aprox.	Horario de referencia	Descripción	Rumbo aprox.	Identificación sobre el mapa	Altitud aprox.	Horario de referencia	Descripción	Rumbo aprox.
1	80	5 min.	Tomamos a la izquierda junto al Santutxo de Zestua, siguiendo la calzada que se ciñe a las laderas de Ertxin	S.E.				dente buscamos un pequeño sendero señalado con unas marcas rojas en su iniciación.	
2	30		Poco antes del collado tomamos un camino empedrado a la derecha.	S.	8	580	4 h. 15 m.	Cruce con un ancho camino que nos lleva hacia la venta de Iturriotz.	E.
	280	35	En el momento de comenzar a perder altura tomamos un sendero a la izquierda, bordeando un bosque de pinos.	S.E.	9	440	4 h. 40 m.	Venta de Iturriotz. Camino hacia el collado de Altzu Zelai, bordeando Trintxaleku.	N.
		55	Nos cruzamos con una amplia pista.	E.			5 h. 15 m.	Collado de Altzu Zelai. Hacia el N.O. se dibuja un camino empedrado que gana altura por las laderas de Pagoeta.	
3		1 hora	Junto a una langa nos dirigimos hacia una pista sobre la cual cruza una línea de conducción eléctrica.	E.			5 h. 40 m.	Entre caminos de hierba, flanqueados por muretes de piedra, ascendemos hacia los rasos cimeros de Pagoeta.	N.
4	360	1 h. 30 m.	Cruce con la carretera de Aizarna a Santa Engrazia.		10	714	6 h. 15 m.	Cima de Pagoeta. Itinerario de descenso a lo largo de un amplio cordal.	N.O.
5	480	1 h. 45 m.	Ermita de Santa Engrazia.		11		6 h. 25 m.	Pequeño collado cruzado por una alabrada. Seguimos manteniendo el lomo del cordal.	N.O.
6		2 h. 10 m.	Cruce con la carretera de Errezil a Erdoizta. Tomamos el sendero que se abre al frente.	S.	12	340	6 h. 55 m.	Urdaneta. Enfilamos el borde de Illarratzo o Txatxarromendi por su ladera Norte.	
7	610	2 h. 45 m.	Collado de Komisolatza. Comenzamos el descenso por una pista.		13		7 h. 20 m.	Seguindo el sendero, que desaparece en algunos tramos, nos colocamos bajo el collado de separación de Illarratzo e Indamendi.	N.
		2 h. 55 m.	Encontramos una pista a la derecha que evita el descenso a Erdoizta y bordea las laderas de Gazume.				7 h. 50 m.	Elkano. Descendemos partiendo desde el muro Oeste de la Iglesia, buscando la barranca, por la que discurre la carretera que nos lleva a Zarautz.	N.
		3 h. 05 m.	La pista se acaba y hay que intentar empalmar con el antiguo camino que desciende suavemente hasta enlazar con la pista que procede de Erdoizta.	E.			8 h. 35 m.	Llegada a Zarautz.	
	510	4 h.	En un tramo ligeramente ascen-						



# LIZARDIREN NATURA MINA

*Juan San Martin*

*La lengua de un pueblo que no tiene literatura no tiene futuro. En el caso del euskera y del pueblo vasco, uno de los grandes nombres del renacimiento vasco es Lizardi, un poeta lirico original, moderno, innovador del idioma. Especialmente interesante para nosotros los montañeros... Lizardi convertia en poesia la llamada de las cumbres.*

*José Maria Agirre «Xabier Lizardi» (1896-1933), zarautzarra, licenciado en Derecho, gerente de fábrica en Tolosa, sus dos obras más conocidas son: «Biotz-begietan» y «Umezurtz-Olerkiak». Difícil encontrar una pluma mejor que la del eibarrés Juan San Martin para contarnos, en el 50 aniversario de su muerte, lo que la lengua y la cultura vasca deben a Lizardi.*

Xabier Lizardi olerkariarekin hartu zituen euskal literaturak bere lirikaren goi mailak eta Naturaren mina ere gutitan agertu da hain nabarmen. Gizona, aberria eta Natura zituen Lizardik bere sentipenen gai nagusiak eta hizkuntz berezi baten

bidez agerrerazi zituen. Lekukotasunik anitz badugu, baina mendizaletasunari dagokionez, kirol honen praktika baino aisago joan zen gogozko bideetatik amatezko gailurretara. Gailurren dei hori olerki bihurtzeko. «Mendi-gaiña» deritzan olerkia

dugu horren argibide:

**Maite ditut gailurrak  
argiak ez beste...**

**Ai, egaztia banintz  
gaiñik-gaiñ nebilke!**

beitsoaz hasi eta bukatzen dena, guk gu-

re garaian mendi gailurretan hainbeste aldiz gogoratutako bertsoa.

Lizardik, udaberri goizetan sentitzen zuen eutsi ezinezko mina, ezkutuko indarretatik zetorkiona, atsedean egarriaren eraginez. Guk, mendizaleok, hitzez bere zentzu poetikoa ematen jakin ez badugu ere, antzerako zerbaitek eroan gaitu gailurrik gailur, gure gaztaroko kirol ekintzetan eta bitziza guziaren zehar aparteko lasaitasun naro eta baketsuaren bila. Hirietan aurkitzerik ez genuen atsedena, noski.

Holako poeta batek merezi du bere jaiotzaren mendeurrena ospatzean mendizaleon oroitzapena, hare gehiago gure hizkuntza berezi hontan Natura mina hain ongi eta txukun agertu zuenez. Horregatik, gure poetaren gorazarrez, esan beharrean aurkitzen naiz —argi salatu beharrezkoa— Euskal Herriko mendizaleen artean aber-tzaletasunaren erdia balitz euskaltzale-tasuna, ohore hoberik mereziko zuela bai gure poetak eta bai bere obrak, euskara gabeko Euskal Herriz sinesterik ez dugunez.

Baina, horrez gainera, bestelako meriturik ere bazuen gure poeta honek. Era berrien sortzaile genuen euskal literaturan. Egia esan, Euskaltzaleak zeritzan taldearen inguruan mugitu zen, euskaldun gazteriari gure hizkuntzaren aurpegi berri bat erakutsi nahirik, euskara beraren sendagarri.

Euskaltzaleak elkarte sortzeko ideia 1930an agertu zen «Euskeraren Eguna» Zumaian ospatzeaz, baina mugimendu horrek 1926 kokatzen du bere etorkia. Olerki, Antzerki eta Eleberri lehiaketak antolatzen hasiak ziren eta euskara eskolara ere eroan nahi zuten. Erakundeari bere bide idekitzean eta antolamenduan gizonik askik parte hartu zuten, baina buruzagitzan gehien nabarmendu zena Jose Ariztimuño «Aitzol» izan zen. Kulturaz jantzia eta olerkaritzak herri batentzat zuen garrantziak ongi jabetzen zen gizona. 1930. urtean Errenderian eratu zen olerki sariketako bildumari egin zion hitzaurrean ara zer zion: «Oraingoan, euskaldunak gure izkera apaindu eta aberastu bearrean gera. Eusko-elertia oparotsuenetakoa ez bada ere, ez da askok uste lezateken bezin argal eta makala. Euskaltzaleak alaz guztiz, gure elertiarri mendu gazteak txertatuz sendotu nai luteke. Ortarako biderik egokiena ordea, elerti gaiari eragitea zaigu. Goitar indar menea, almenbiotzetan, darabilkiten gazte azkarrak bai bai-ditugu». Antzerako ideietan oinarriturik abiatu zen Euskaltzaleak elkartearen ekintza. Literatura lantzen ez duen herriaren hizkuntzak ez bai du etorkizunik.

Izan ere, literatura da hizkuntzaren ondasuna. Eta, hara Lizardi berak zer zion hortaz: «Euskerak eman digu erri-izena. Euskera da gure bereiz-alderik (**hecho diferencial-k**) nabariena. Euskerak etxekotu gaitzake oraindik senide guztiok: euske-

ria-gabetzeak arrotzu».

Horregatik, Lizardirentzat, euskararen gaitasuna zen garrantzikoena, euskararen erabilpena, olerki batean hain ongi zion bezala:

**Baiña nik, izkuntza larrekoa,  
nai aumat ere noranaikoa:  
jakite-egoek igoa;  
soiña zaar, berri gogoa;  
azal orizta, muin betirakoa.**

Eta horregatik ahalegindu zen naturalezari ere bere tratamendu egokia ematen, inork inoiz euskaraz erabili gabeko gaiak, euskara zaharrean, baina inoiz erabili ez zen eran, hitz zaharri betikotasun osoa emanez. Maitagarriak iduritzen zitzaizkion basoak, eguzkiaren lehen muinez sortzen zirelako zorionezko lore ezezagunak. Eta, galdetuko zuen: «Nik amestu bezela ote-aiz, mendi-gaiña?». Handik gora ere begiratuko zuen, galdea luzatuz zeru aldera, goi-jauregi maila ote den edo aingeruak hurbilago dituen susmoz, Jainkoaren esku eta handitasuna iker nahirik. Baina urdin ikusten zituen goiak, urdinaren azpitik urre lainotsupean beheko txikikeriak; eta bere gisara otoitz eginez zuen: «arren, adiskide urruna, mendi maitea, negar-harran beltz honi ken nazakiok!», oihi egitera arteko mendizaleatasun mina zeraman gure olerkariak.

Bere olerki minaren iturria era hontara adieraziko zuen:

**Biotz-begietan zatzaidate sortu:  
biotzeanago batzuk; besteak  
betsein-betseinotan... Biotz-gabe ta  
itsu,  
nork, izan ere, bil olerti-loreak?**

Irudi berrien sorketarako doainez nabari zen. Iragan martxoaren 13an Karlos Ote-gik Tolosan Lizardiren omenez eman zuen hitzaldian ongi zion bezala: Poesiari berari sujetotasun berezia ematen dio: zuek «zatzaidate sortu». Badirudi olerkiak berez, beraien eragin propioz erretzen direla, poeta, nolabait esateko, pasiboki, hartzaile jasankor baten modura, ezinbesteko erditze edo sortze ekintzan aurkitzen delarik.

Begia da Lizardiren «Biotz-begietan» maizen agertzen den izena eta hortik ikusten dituenak: gaua, eguzkia, eguna, bizia, lurra, argia, biotza... adibidez. Izenez baliatuz, izadiarekin solasean sartuko zen, K. Otegi ongi markatu zuenez: «bide ertz onetan, nadin eseri, / iri begira, sagastia» edo «Txindoki, orain agokit aurrean / go-riak astundu -tantai arrizko».

Puntu hontan Otegi jarraituz: Izadiarekin harremanetan jartzerakoan, «zu» eta «ni» horiek jadanik, berez, suposatzen duten personifikazioari poetak beste pertsonifikazio berezia erasten dio, izakiak giza-kumearen ezaugarriaz jantziz: Udaberria: «neskatx urdin-jantzia» (Neskatx urdin-jantzia). Negua: «negu agurea» (Sagar lore). Eguzkia: «jaun orail eder, legorteen aita» (Sagar lore). Izotz-ondoko eguzki:

«neguaren parre» (Izotz-ondoko eguzki). Gaua: «ama Gaua beltzeran» (Ama Gaua beltzeran...). Lurra: «andre lurra» (Ondar gorri). Zuhaitza: «arbaso pakezale agurgarri» (Zuaitz etzana). Mendia: «adiskide urruna» (Mendi-gaiña). Itzala: «andereño otzan» (Baso itzal). Kilkerra: «olerkari arlotea» (Sagar lore). Txitzarra: «alper eder» (Ondar gorri).

Alegoria gisa bihurtzen ditu naturaren izenak, ikuspegi berri bat eskainiz, jolas-kortasunez, argi izpi berriak emanaz gauza bakoitzaren irudiz: zuhaitzak esku sendoz idazten du enborretako biribilketan, otalorak dei egiten dio udaberriari karraxika, udalehenak irri zoro ozena du, soroa maldan etzanik dago, egunak arrausi egin nahi du, egunak bekaitz sentitzen du, goiza jaiotz egiten da, haizea haserre dabil, eguzkiak basoari eta mendiari mun egiten dio, basoa orriz jazten da, izarrak gauaren sabelean argitzen du, eguzkiak bere basoa sartzen du goizez etxeko leihotik, baratza eguzkiz jazten da, euriak eguzkia giltzapean sartzen du eta hodeien sabelean katez loturik dago, lurra eta zuhaitza elkarri munda daude, eta abar, Natura bera pertsonifikatuz eta era berean irudi berri azalduz, neurri handi batean bere poeta izatean Naturekin nahasturik bat egiten delarik.

Izadiaren edertasuna dario Lizardiren poesiari, aitortuko zuen Otegi. Baina heriotza ere bertan da, sendimendurik min-korrenez agertuko bai zuen: zuhaitz ebakia lurrean datza, eguna hil egiten da... Hala ere, berriro, bizia gailen: gaua ama da eta egun berria erdituko du, zuhaitz eroria eramango dute eta mendia edertasunez berragertuko da...

Lizardiren olerkari balioak ez dira erraz neurtzekoak. Hala ere, euskarak inoiz eman duen olerkaririk handienetakoa, dugula lasai esan genezake. Aitzolen gidaritzapean mugitu zen Euskaltzaleak elkartearen ekintza inguruan loratu zen Lizardi ere, Lauaxeta, Zaitegi, Orixe eta beste zenbaitekin batean. Gogamen eta ekarri aberatseko poeta zen Lizardi. Sorketarako ahalmen bereziak zituen, irudimentsua zen, ikuspegi bereziduna eta txukun adierazten zekiena. Hizkuntza bera, labur esaldiz, idea osatuak, edertasunez jabeturik, hizkuntza poetikoan inori zorrik gabea. Hala ere, aitortu behar, hizkuntza kontuan hurbildik laguntzen ziola Orixe zenak, eta inor maisutat aipatzekotan, hizkuntzaren Orixe zuela aitortu behar. Baina, hizkuntza erabiltzean eta hizkuntzaz gauzak agertzean, bai sinboloetan eta bai irudimenduetan, bere gogoaren nortasunezkoa zuen Lizardik.

Oinez gailurrik hartu bazuen ere, Natura hain egoki olerkietara eroan zuen gizonak, behinik-pehin gure literaturaren historiako gailurrik erpinetara iritsi zen, eta mendizaleok ere gure oroitzapena zorri-oguzki Lizardi zenari.